

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

89/2022 Mozioa, azaroaren 9koa, Vitoria-Gasteizko Bus Elektriko Iraunkorraren (BEI) finantzaketarako erakundeen arteko lankidetzari babesa ematekoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko azaroaren 9an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

89/2022 Mozioa, azaroaren 9koa, Vitoria-Gasteizko Bus Elektriko Iraunkorraren (BEI) finantzaketarako erakundeen arteko lankidetzari babesa ematekoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek babesten dute garraio publikoan (BEI barne dela) gauzatzen ari diren inbertsioen bidez mugikortasun jasangarriaren, mugikortasun aktiboaren eta gaitasun handiko mugikortasunaren arloan Vitoria-Gasteizko Udala egiten ari den apustua, herritarrei aukera emango baitie hiri osasungarriago, jasangarriago eta seguruagoa izateko, hiria karbono-neutroa izateko helburuari helduz.

2. Arabako Batzar Nagusiek BEI finantzatzeko erakundeen arteko lankidetzari babesten dute, zehazki, BEIren linea eta autobusak eta kargatze-unitate funtzionala eraikitzea jasotzen dituzten bi hitzarmenak, zeinak Batzar Nagusiek berretsi baitzituzten urtarrilaren 20ko 1/2016 Foru Arauan eta maiatzaren 4ko 5/2020 Foru Arauan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA